GAIA: Partehartzezko prozesuaren emaitza
Resultado del proceso participativo
EGUNA: 2018/12/13

**Aurrekontu partizipatiboen prozesuaren ondorioz, herritarren 3 proposamen, 350.000 euroko zenbatekoarekin, udalaren 2019ko aurrekontuan sartuko dira: haurrentzako parke bat estaltzea, oholtza mugikor bat eta 2 txosna erostea, eta sonometro bat erostea.**

Aurkeztutako proposamenak honako hauek izan ziren:

1. Askatasunaren parke osoa estaltzea, Brigitarren komentuaren hormari erantsitako estruktura batekin.
2. Udalerriko haurrentzako parke bat estaltzea, zein zehaztu gabe.
3. Lasarte-Oriako aparkamendua hobetzea.
4. Haurrentzako parke bat estaltzea, Askatasunaren parkeko argiztapena hobetzea, txakurrentzako iturriak, herriko gabeziak detektatzeko pertsonala eta Michelingo jantokiaren garbiketa hobetzea.
5. Sonometro bat erostea, hura erabiltzeko langileak trebatzea, eta kanpoko enpresa baten kargura 20 neurketa egitea.
6. Lasarte-Oriako entitate kultural bati Italiara joateko bidaia ordaintzea.
7. Kale Nagusia 69-71ko aparkalekuen berrurbanizazioa.
8. Oholtza mugikor bat eta 2 txosna erostea.

Behin 1. fasea amaituta, idazkariak, kontu-hartzaileak, hirigintzako eta zerbitzuetako buruek, kulturetxeko gerenteak eta bulego teknikoko arkitektoak osatutako batzorde tekniko bati pasatu zitzaizkion proposamenak, lehen ebaluazioa egiteko eta prozesurako ezarritako baldintzak betetzen ez zituztenak baztertzeko. Batzorde horrek erabaki zuen aurkeztutako proposamen guztiak ez zirela osatuak, baina aztertu egin behar zirela.

1. Askatasunaren parkea estaltzearena hainbat arrazoirengatik baztertu zen:

**Como resultado del proceso de presupuestos participativos 3 propuestas ciudadanas por 350.000 euros se incorporarán al presupuesto municipal de 2019: la cubrición de un parque infantil, la adquisición de un tablado móvil y 2 txoznas y la compra de un sonómetro.**

Las propuestas presentadas fueron:

1. Cubrir todo el parque de la Libertad con una estructura anexa al muro del convento de las RR.MM. Brígidas.
2. Cubrir un parque infantil del municipio, sin determinar cuál.
3. Mejorar el aparcamiento de Lasarte-Oria.
4. Cubrir un parque infantil, mejorar la iluminación del parque de la Libertad, fuentes para perros, personal para detectar deficiencias en el pueblo y mejora de la limpieza del comedor de Michelín.
5. Compra de un sonómetro, formación del personal para su uso y 20 mediciones a cargo de una empresa externa.
6. Abono de un viaje a Italia a una entidad cultural de Lasarte-Oria.
7. Reurbanización del aparcamiento de Kale Nagusia 69-71.
8. Compra de un tablado móvil y 2 txoznas.

Culminada la 1ª fase se pasaron las propuestas a una comisión técnica, formada por el Secretario, el Interventor, los jefes de Urbanismo y de Servicios, el gerente de la Casa de Cultura y el arquitecto de la Oficina Técnica para hacer la primera valoración y descartar las que no cumplieran las condiciones establecidas por el proceso. Esta comisión determinó que todas las propuestas presentadas no eran completas pero que debían ser analizadas.

1. La cubrición del parque de la Libertad quedó desestimada por varias razones:

a. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak eremu hori babesteko ezarritako sistemak ez du estruktura iraunkorrik onartzen.
b. Brigitarren komentuari lursailak erosteko hitzarmenak ez du baimentzen horma eta fatxadak ukitzea, eta, gainera, bista-eskubideak ematen dizkie.
c. Proposatutako estrukturak aise gaindituko luke 500.000 euroko kopurua.

2. Haurrentzako parkea estaltzearena aintzat hartu zen, mozketa pasatu baitzuen 120.000 euroko balorazioarekin. Zerbitzuen departamentuak erabakiko du zein parke estali, kontuan izanda haren lurzoruaren azpian aparkalekurik ez izatea.
3. Aparkamendua hobetzearena oso proposamen orokorra da, aurrekontuetan zehaztu ezin dena, eta baztertu egin da.
4. Haurrentzako parkea estaltzearena eta txakurrentzako iturriena aintzat hartu dira; Askatasunaren parkeko argiztapena hobetzeari ezin zaio ekin, herritarrek parte hartzeko prozesu espezifiko batean sartua baitago parkea; herrian gabeziak detektatzeko pertsonala badago lehendik ere; eta Michelingo jantokiaren garbiketa sartua dago zentroak garbitzeko kontratuan.
5. Sonometroaren erosketa eta prestakuntza aintzat hartu dira, mozketa pasatu baitute 30.000 euroko balorazioarekin.
6. Herriko talde kultural bati Italiako bidaia ordaintzeko proposamena baztertua geratu zen, izaera pribatukoa izateagatik eta herriarentzako onurarik ez izateagatik.
7. Kale Nagusia 69 eta 71 arteko aparkalekua berrurbanizatzeari ezin zaio ekin, izaera pribatuko interbentzio bat baita eta aparkaleku horien kontzesioa ez baitago

a. El sistema de protección del área establecido por Cultura del Gobierno Vasco no permite una estructura permanente.
b. El convenio de compra de los terrenos a las RR.MM. Brígidas no permite tocar el muro ni las fachas, además de otorgarles derechos de vista.
c. La estructura propuesta superaría ampliamente los 500.000 euros.

2. La cubrición de un parque infantil se estimó, pasando el corte con una valoración de 120.000 euros. El departamento de Servicios establecerá el parque a cubrir, teniendo en cuenta la no existencia de aparcamientos bajo su superficie.
3. La mejora del aparcamiento es una propuesta muy general que no se puede concretar en presupuestos, quedando desestimada.
4. La cubierta de un parque infantil y las fuentes para perros se estiman, la mejora de la iluminación del parque de la Libertad no puede abordarse al estar incurso el parque en un proceso de participación ciudadana específico, el personal para detectar deficiencias en el pueblo ya existe y la limpieza del comedor de Michelín está incluida en el contrato de limpieza de centros.
5. La compra del sonómetro y la formación se estiman, pasando el corte con 30.000 euros de valoración.
6. La propuesta de abono del viaje a Italia de un grupo cultural local quedó desestimada por tener carácter privado y ningún beneficio para el pueblo.
7. La reurbanización del aparcamiento entre Kale Nagusia 69 y 71 no puede abordarse al tratarse de una intervención de carácter privado y a no estar regularizada la concesión de dichos aparcamientos.
8. La compra del tablado móvil y dos txoznas pasó el corte con una

erregularizatua.

8. Oholtza mugikorraren eta bi txosnaren erosketak pasatu zuen mozketa, 200.000 euroko balorazioarekin.

Mozketa pasatu zuten proposamenak ondoren Bozeramaileen Batzordeak aztertu eta ebaluatu zituen. Talde politiko guztietako ordezkari banak osatzen dute batzorde hori, boto ponderatuarekin. Emaitza gisa, hiru proposamenek lortu zituzten onetsiak izateko behar ziren gutxieneko puntuak (25); batek, berriz, ez.

Hau izan zen balorazioa:

1. Oholtza mugikor bat eta bi txosna erostea. 200.000 euro. (31 puntu).
2. Haurrentzako parke bat estaltzea. 120.000 euro (28 puntu).
3. Sonometroa erostea eta hura erabiltzeko trebatzea. 30.000 euro. (28 puntu)
4. Txakurrentzako iturriak. 5.000 euro. (20 puntu). Ez zen onetsi.

Onetsitako hiru proposamenen baturak 500.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez duenez gero, ez da beharrezkoa herri-kontsulta egitea eta 2019ko aurrekontuetan sartuko dira, horrela amaitzen delarik aurrekontu partizipatiboen prozesua.

valoración de 200.000 euros.

Las propuestas que pasaron el corte fueron posteriormente analizadas y valoradas por la Junta de Portavoces, compuesta por un representante de cada grupo político con voto ponderado. Como resultado tres propuestas obtuvieron el mínimo de puntos necesarios para ser aprobadas (25) mientras que una no.

Esta fue la valoración:

1. Compra de un tablado móvil y dos txoznas. 200.000 euros. (31 puntos).
2. Cubrir un parque infantil. 120.000 euros (28 puntos).
3. Compra de sonómetro y formación para su uso. 30.000 euros. (28 puntos)
4. Fuentes para perros. 5.000 euros. (20 puntos). No fue aprobada.

Dado que la suma de las tres propuestas aprobadas no supera los 500.000 euros, no es necesaria realizar la consulta ciudadana, incorporándose a los presupuestos de 2019 y concluyendo de esta manera el proceso de presupuestos participativos.